

Kanala



ENDERTEKA NEGOTIO EREDUA



Zer egingo dugu gure zerbitzua bezeroengana helarazteko?

Kanala aukeratzeko garaian, **merkatuaren segmentazioa** hartuko dugu kontuan, izan ere, gure bezero nagusiak ikasle talde gazteak izanik, **sare sozialez** eta gaur egun erabiltzen diren **komunikabideez** baliatuko gara.

Sare sozialak

Gaur egun, gazteentzat sare sozialak **ezinbestekoak** dira, ia egunero kontsumitzen duten tresna izanik. Hortaz, gehien erabiltzen dituzten sare sozialekin arituko gara, besteak beste, **instagram, tiktok...**

INSTAGRAM



Zeinek ez du gaur egun instagram-eko kontu bat?

Gazteek denbora asko igarotzen dute sare sozial honetan nabigatzen. Bertako **reels**-ak ikusten beste gauz askoren artean. Horregatik da, gure kontuan **bidioak, post-ak** eta **story-ak** publikatuko ditugula gure **zerbitzuen** eta **nobedadeen** inguruan, ahal bezain laster jabetu daitezen.

TIKTOK



Eta, ez esan ez duzula tiktok? Benetan?

Tira, ez du axola. Baina nerabeek seguruenik igarotzen dute haien egunaren laurdena tiktok-eko **bidioak** ikusten, bata bestearen atzetik, ezin gelditu. Guk ere, aplikazio honen bitartez gure **zerbitzua promozionatu**ko dugu, bezero eta ikasle berriei helarazi dadin.

YOUTUBE




Denok eskura dugun aplikazioa da, ezta?

Gutxien erabiliko dugun tresna izan arren, bertan, **bideo luzeak** eta **blog-ak** publikatuko ditugu gure endertekaren inguruan, jende berriaren **jakinmina pizteko** nahi hutsarekin. Arrakasta lortuz gero, eduki gehiago grabatuko dugu, bezeroen xede eta nahiak betez.

Ate irekiak

Aipatutako guztia gutxi izango balitz, **egun konkretu bat** hartuko dugu, non, ate irekiak burutuko ditugun. Ekitaldi honetan, gure instalazioak ezagutzeko aukera izango dute gerturatzen den edozeinek. Bertan, **folletoak, promozioak** eta **abantailak** azalduko dira eta ondorioz, bezeroak harpidetzea lortuko dugu.



Abantailak



Harpidetuz gero, urteko egun guztietan irekia dagoen liburutegiaz gozatzeko aukera.



Ate irekietan zerbitzua erosiz gero, %5 eko deskontua ezarriko zaio berehala.



Plan familiarra egiteko aukera dago, familian ikasketa prozesuan dauden hainbat pertsonentzat baliagarria eta, gainera, merkeagoa.



Gure prozesuan jarraitu nahi?

Lehen aipaturiko sare sozialetan jarraitu nahi badiguzu, **enderteka_** gisa gara ezagunak, bertan gaude, zuen zain!

